

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

Mendibil herriko Arratzua-Ubarrundia udalerriko 3. poligonoko 1077 zenbakiko lurzatian dagoen makaldia moztea

Espediente-zenbakia: AO-A-2020-0077

Eskatzailea: Arabako Foru Aldundia.

Zadorra eta Santa Engrazia ibaien ibilguen arteko partzelan dagoen makaldia moztuko da. Partzela horren zati bat bi ibilguen jabari publiko hidraulikoaren eremuan egongo da, 0,29 hektareako azalera, gutxi gorabehera.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hiru egun balioduneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11- 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 30a

Mediterraneoko Arroen bulegoburua
JAVIER AGIRRE ORCAJO